



## 2.2. AURREIRITZIAK HIZKUNTZAREN BAITAN

## 32. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<i>Hizkuntza kontzeptua</i>																																
<b>HELBURUA</b>	Ikasleei ulertaraztea hizkuntza kontzeptua aldaera multzo bat dela.																																
<b>PROZEDURA</b>	Ariketaren aginduei jarraitu.																																
<b>ERANTZUNAK</b>	<table border="1"> <tr> <td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td><td>7</td><td>8</td><td>9</td><td>10</td><td>11</td><td>12</td><td>13</td><td>14</td><td>15</td><td>16</td> </tr> <tr> <td>G</td><td>G</td><td>E</td><td>G</td><td>G</td><td>E</td><td>G</td><td>E</td><td>G</td><td>G</td><td>E</td><td>E</td><td>G</td><td>G</td><td>G</td><td>G</td> </tr> </table>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	G	G	E	G	G	E	G	E	G	G	E	E	G	G	G	G
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16																		
G	G	E	G	G	E	G	E	G	G	E	E	G	G	G	G																		

### ARIKETA

A. Esan ezazu, zure iritzian, hurrengo baieztapenetatik zein den egiazkoa eta zein ez den:

1. Hizkuntza bateko hiztun guztiek berdin-berdin hitz egiten dute.....	E / G
2. Modu berean hitz egiten dugu beti.....	E / G
3. Hizkuntza ez da beti modu berean agertzen.....	E / G
4. Hizkuntzaren aldaera bakarrak dialekto geografikoak dira.....	E / G
5. Alde batetik hizkuntza dago eta bestetik hizkuntza horren dialektoak, hau da, aldaera linguistikoak.....	E / G
6. Zeinahi dialekto hizkuntzaren parte edo aldaera da.....	E / G
7. Dialektoa, berez, gaizki hitz egiten den hizkuntza da.....	E / G
8. Dialektoa, estatus politiko eta sozial jakin batera iritsi ez den sistema linguistikoa da.....	E / G
9. Dialekto-aldiera batzuk beste batzuk baino hobeak dira.....	E / G
10. Estandarra da hizkuntza.....	E / G
11. Dialekto bat ez da, linguistikari dagokionez, beste bat baino hobeak.....	E / G
12. Estandarra hizkuntzaren aldaera bat da.....	E / G
13. Hizkuntza izango da estatu baten mintzaira ofiziala bada.....	E / G
14. Kalitatezko literaturarik ez duen hizkuntza ez da hizkuntza.....	E / G
15. Hizkuntza da hiztun asko, idazketa eta literatura dauzkan zerbait.....	E / G
16. Sistema linguistiko bat edo hitz-zeinuen sistema bat hizkuntzatzat jo dadin, beharrezkoa du transkripzio grafiko jakin bat izatea, hau da, ortografia zehatz bat.....	E / G

B. Bikoteka, alderatu zuen erantzunak. Eztabaidatu zuen arteko aldeak eta saiatu akordio batera iristen.

C. Iritzi guztiak talde handira ekarri. Alderatu zuen erantzunak klaseko beste guztiekin,

### 33. JARDUERA


<b>EDUKIA</b>	<b>Hizkuntza estandarra</b>															
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ikasleek <i>estandar</i> kontzeptua uler dezatela.: aldaera estandarraren funtzioak eta ezaugarri linguistikoak.</li> <li>◆ Ikasleek jakin dezatela aldaera hau erabiltzen bere erabilera antolatzen duten gizarte-arauen arabera. Alegia, ikasleek jakin dezatela zein egoeratan eta zein funtziotarako erabili behar duten hizkuntzaren aldaera hau.</li> </ul>															
<b>PROZEDURA</b>	Ariketaren arauei jarraitu..															
<b>ERANTZUNAK</b>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
	E	E	G	E	G	G	E	G	E	G	G	E	E	G	E	E

#### ARIKETA

Esan ezazu, zure iritzian, hurrengo baiezenetatik zein den egiazkoa eta zein ez:

1. Aldaera estandarra zera da: hizkuntza-komunitate osoaren esparruan komunikazio normala ahalbidetzen duen aldaera supradialektala.....	E / G
2. Dialekto desberdinak dituzten taldeen arteko komunikazioak dialekto horien arteko hurbilketa bat eskatzen du, talde horien arteko ulermena erraztuko duena.....	E / G
3. Aldaera estandarra aldaera dialektal geografikoen aurkakoa da.....	E / G
4. Aldaera estandarra bereizgarri geografiko, sozial edo bestelako gutxien dituen aldaera da.....	E / G
5. Aldaera estandarra hizkuntza da; beraz, alde batetik hizkuntza dago eta bestetik dialektoak (edo aldaera ez-estandarrek).....	E / G
6. Aldaera estandarra literatura-hizkuntza da; beraz, aldaera estandarra idatzizko hizkuntzaren aldaera bat da.....	E / G
7. Dialektoen arteko komunikazio espezializatua aldaera estandarrean egin ohi da.....	E / G
8. Aldaera estandarra aldaera monolitikoki homogenea da eta, hortaz, ez du onartzen ahoskeran azentu desberdinik, ezta morfologian edo lexikoan desberdintasunik ere.....	E / G
9. Estandarra taxutzerakoan denek hartzen dute parte: hedabideetako profesionalek, intelektualek, komunitate zientifikoak, botere politikoak, etab..	E / G
10. Estandarra taxutzerakoan linguista talde txiki batek baizik ez du parte hartzen.....	E / G
11. Aldaera estandarrek ez du arau linguistikoa jarraitzen.....	E / G
12. Estandarra hizkuntzaren aldaera kodifikatu bat da eta komunitate linguistiko moderno baten edo bere burua modernizatu nahi duen baten premia ugari eta konplexuen esanetara dago.....	E / G

13. Berez dagozkion komunikazio-egoeretan erabiltzeko aldaera estandarra berreskuratzea hizkuntz normalizazioaren zeregina da..... E / G
14. Aldaera estandarra, eskuarki, familiarreko harremanetan ikasten da..... E / G
15. Aldaera estandarra, eskuarki, eskolan eta ahozko zein idatzizko hedabideen (prentsa, irratia eta telebista) eraginaren bidez ikasten da..... E / G
16. Aldaera estandarrak balio sinboliko eta biltzaile handia du eta hiztun guztientzat erreferentzia gisa balio du. Horrez gainera, gainerako komunitate linguistikoekiko eginkizun bereizlea du..... E / G



## 34. JARDUERA

EDUKIA	Hizkuntza estandarraren erabilerari buruzko jarrerak
HELBURUA	<ul style="list-style-type: none"><li>◆ Estandarrari buruzko aurreiritziak agerraraztea.</li><li>◆ Ikasleei ulertaraztea estandarraren funtzioak eta funtzio horiek hitzunen jarrerekin duten harremana.</li><li>◆ Ikasleengan jarrera positiboa indartzea. Nola? Estandarra erreferentzi marko moduan eta dialekto arteko hizkuntza-eredu prestigiodun moduan baloratuta.</li></ul>
PROZEDURA	Ariketaren arauak jarraitu.

### ARIKETA

Ondorengo testuek hizkuntza estandarraren inguruko hainbat iritzi adierazten dituzte. Irakurri eta erantzun ondoko galderei:

Uste duzu iritzi hauek ideia okerretan oinarritzen direla? Horrela uste baduzu, adierazi eta kontrako argudioak eman..

1. "Euskarak ez du aldaera estandarren premiarik, familiarren komunikazio informalean erabiltzeko baizik ez baitu balio. Espainiera eta beste hainbat hizkuntza (ingeleza, frantsesa) bestelakoak dira: kultura-hizkuntzak diren neurrian, eskolan — ere— ikasten den aldaera estandarra dute".
2. "Nik ez dut euskara estandarra ikasteko premiarik, euskaraz senideekin eta adiskide batzuekin bakarrik hitz egiten dut eta".
3. "Ez dut inola ere onartzen ikastetxeko euskara-eskoletan normalean etxean eta geure harreman pribatuetan erabiltzen ez dugun aldaera bat ikasi behar izatea: ene ustez, mintzaira hori ez den guztia ez da euskara".
4. "Nik badakit estandarrak komunikazio publikoetan erabiltzeko balio duela eta, adibidez, erakunde publiko baten aurkako erreklamazio-eskutitz bat egin behar banu, aldaera horretan idatzi beharko nukeela; baina horretarako espainiera estandarra daukadenez, ez dut euskara estandarra ikasteko premiarik".
5. "Norberak aukeratu beharko luke, komunikazio pribatu zein publikoan, zein hizkuntzatan aritzen den errazen eta erosoan. Beraz, euskarak ez du zertan bete arautegi bateraturik".
6. "Ondo iruditzen zait espainierak, frantsesak, ingelesak eta beste hizkuntza askok gramatika arauetan oinarritutako aldaera estandarra izatea eta bai hedabideetan diharduen pertsona batek hitz egiten edo idazten duenean gramatika arauaren arabera ez aritzea okertzat jotzea ere. Baina euskarazko hedabideetan horrek ez du zertan horrela izan".
7. "Euskaraz mintzatzen diren gainerako hiztun taldeekin —beste edozein euskalkitakoekin— badugu espainiera. Beraz, beste aldaera supradialektal edo interdialektalen premiarik ez dugu, alferrikakoa da hori".

8. “Ez du inolako garrantzirik euskaldunek espainierazko joskera edo hitzak erabiltzeak —hedabideetan edo nolabaiteko formaltasuna eskatzen duten egoeretan ere ez—. Ezta beste hizkuntzetako hiztunek horrelakorik egiten ez badute ere; edo, horrela egiten badute, okertzat (desegokitza) jotzen bada ere”.
9. Euskarak eguneroko kontu txikiez aritzeko baizik ez du balio. Ez da gauza kontzeptu eta pentsaera kulturalak adierazteko. Beraz, euskarak ez du aldaera estandarren premiarik eta euskaraz mintzatzen direnek ez dute aldaera hori zertan ikasi.

IDEIA OKERREN ZERRENDA	KONTRAKO ARGUDIOAK

### 35. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Dialekto historikoen berezko berdintasuna (Hegoaldea)</b>
<b>HELBURUA</b>	Euskara batuaren aurretiko testuak irakurtzeko ikasleek izan ohi dituzten aurreiritziak deuseztatzen laguntzea. Konturatu egin behar dira oso garai ezberdinak direla batuaren aurretiko garaia eta oraingo hau. Oraingo honetan ere, kalifikazioa ez da “hobea” edo “txarragoa”, garai bakoitzean garai bakoitzeko begiekin ikusi behar da-eta.
<b>PROZEDURA</b>	Euskara batua sortu aurretiko testuak eskuartean izanik, alderatu egin behar dituzte gaurko euskararen ezaugarrietara egokitutako testu bertsuekin. Komeni da ondorio honetara iristea: bi ereduaren arteko aldea ez dela horrenbestearinokoa.

#### ARIKETA

1. Ezker-eskuin jarrita, testu bera duzu bi modutara idatzia. Ezkerreko zutabearen bere momentuan egileak idatziriko. Eskuinekoan, aldiz, egungo euskara batuaren ezaugarrietara egokituta. Saia zaitez berdintasun eta antzekotasunetan erreparatzen.



<p><b>Bandera beltza</b></p> <p>Ixtillu pranko atera dute Santa Kruzek egin omen zulako bandera batengaz, «gerra atertu gabe», ziona. Orrek ikaratzen ditu beste aldeko batzuk. Bai gizon odoltzalea! Badakigu, Santa Kruzen buru ordez 10.000 pezeta eskeñirik zeudela. Pezeta oien atzetik ispiak non nai aterako zirela esan bearrik eztago. Aiek izutzeko zerbait bear zala ta Santa Kruzen berri gabe, Hilario zeritzan batek egin zun bandera ori. Santa Kruzen bigarren mutil-taldea Hilarioren agindupean zebillen eta aiekin asi zun eramaten. Apaiza oartu zaneko gordeazi egin ziola dio Kaperotxipik: Santa Kruzek berak etzula ikusi ere. Ori da guzia. Ala ere Beran arrapatu zutenean, ori entregatzeko agindu zioten Valde Espinak eta. Eztakigu berekin zerabillen, ala Hilariok zeraman. Dana dala, gerrakoan gerrakoan bezela.</p> <p style="text-align: right;">(Orixe)</p>	<p><b>Bandera beltza</b></p> <p>Istilu franko atera dute Santa Kruzek egin omen zuen bandera bat dela eta, <i>Gerra, atertu gabe</i> zioena. Horrek ikaratzen ditu beste aldeko batzuk: “Bai gizon odoltzalea!”.</p> <p>Badakigu Santa Kruzen buru truke 10.000 pezeta eskainirik zeudela. Dirutza horren atzetik zelatariak nonahi aterako zirela esan beharrik ez dago. Haiek izutzeko zerbait behar zela eta, Santa Kruzen berri gabe, Hilario zeritzon batek egin zuen bandera hori. Santa Kruzen bigarren mutil-taldea Hilarioren agindupean zebilen, eta haiek hasi ziren bandera eramaten. Apaizak, ohartu zeneko, gordeazi egin ziela dio Kaperotxipik: Santa Kruzek berak ez zuela ikusi ere. Hori da guztia. (...) Dena dela, gerrakoan, gerrakoan bezala.</p> <p style="text-align: right;">(Zubimendi, J.R. eta Esnal P.)</p>
---	---

KITO	KITO
<p>NORBAIT, auzartua ta lotsa andi gabea, aitortzera yoan zan bein.</p> <p>—Yauna —esan zion apaizari, belaunikatu eta bereala—, lenengo aginduan bekatu bat edo bestetxo baditut, bigarēnean ez ta kito. Irugarēnean baten batzuk bai, laugarēnean bat ere ez ta kito. Boskarēnean bai, seigarēnean ez ta kito. Zazpigarēnean bai, zortzigarēnean ez ta kito. Bederatzigarēnean bai, amargarēnean ez ta kito.</p> <p>—Adi zak —esan zion konfesoreak—. ¿Azken konfesioan apaizak asolbizioa eman al ikan iri?</p> <p>—Bai, yauna.</p> <p>—Nik orain ez, ta kito.</p> <p style="text-align: right;">(Azkue)</p>	<p>(Bizkaiko Gabikako batek artzain gipuzkoar bati ikasia)</p> <p>Norbait, ausarta eta lotsa handirik gabea, aitortzera joan zen.</p> <p>—Jauna —esan zion apaizari, belaunikatu eta berehala—, lehenengo aginduan bekaturen bat edo bestetxo badut; baina bigarrenean ez; eta kito. Hirugarrenean, bakarren batzuk bai; baina laugarrenean, bat ere ez; eta kitto. Bosgarrenean, bai; seigarrenean, ez; eta kito. Zazpigarrenean, bai; zortzigarrenean, ez; eta kito. Bederatzigarrenean, bai; hamargarrenean, ez; eta kito.</p> <p>—Aizak —erantzun zion abadeak—, azkenekoz aitortu hintzenean, absoluzioa eman al zian apaizak?</p> <p>—Bai, jauna</p> <p>—Ba, nik orain ez; eta kito.</p> <p style="text-align: right;">(Zubimendi, J.R. eta Esnal P.)</p>

2. Zehatz-mehatz ez bada ere, saia zaitetz erreparatzen testu bien artean dauden ezberdintasunik nabarmenenetan: ortografia, aditza, lexikoa...





## 36. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Dialekto historikoen berezko berdintasuna (Iparraldea)</b>
<b>HELBURUA</b>	Euskara batuaren aurretiko testuak irakurtzeko ikasleek izan ohi dituzten aurreiritziak deuseztatzen laguntzea. Konturatu egin behar dira oso garai ezberdinak direla batuaren aurretiko garaia eta oraingo hau. Oraingo honetan ere, kalifikazioa ez “hobe” edo “txarragoa”, garai bakoitzean garai bakoitzeko begiekin ikusi behar da eta.
<b>PROZEDURA</b>	Euskara batua sortu aurretiko testuak eskuartearen izanik, alderatu egin behar dituzte gaurko euskararen ezaugarrietara egokitutako testu bertsuekin. Komeni da ondorio honetara iristea: bi eredu arteko aldea ez dela horrenbestetainokoa.


### ARIKETA

- Ezker-eskuin jarrita, testu bera duzu bi modutara idatzia. Ezkerreko zutabearen bere momentuan egileak idatziriko. Eskuinekoan, aldiz, egungo euskara batuaren ezaugarrietara egokituta. Saia zaitetz berdintasun eta antzekotasunetan erreparatzen.

<p>(...)</p> <p>Cein çaldi da on edo hobeago, gueldiric eta alferric bere plazerera dagoena, ala ibiltcen eta manaiatcen dena? Cein vntci, coftan dagoena, ala itfaloan dabillana? Cein vr, gueldia, ala laferra? Cein burdina, zocoan datçana, ala erabiltcen dena? Segur da, guztiac erabiltceaz, manaiatceaz eta efcuztatceaz ontcen, arguitcen eta fintcen direla, eta bai alfer eta gueldi egoiteaz ere, galtcen, defeguiten, eta herdoiltcen. Bada haur beror gerthatcen da, alfer dagoena baithan ere.</p> <p>Dabillan harriari, etçaica goroldioric lotcen. Vr iraquinean eztu vliac paufatcen. Arduraco arropari, etçaica cerrenic eguiten. Çuhaitz bethacorra, eztu nehore ebaquitcen. Baiña alferra, fauna, hutfa, bere fafoiñean jafaiten ezтуena, certaco da?</p> <p style="text-align: right;">(Axular)</p>	<p style="text-align: center;"><b>Zertarako da alferra?</b></p> <p>Zein zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere plazerra dagoena ala ibiltzen eta manaiatzen dena? Zein ontzi, kostan dagoena ala itsasoan dabilena? Zein ur, geldia ala lasterra? Zein burdina, zokoan datzana ala erabiltzen dena?</p> <p>Segur da erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz guztiak ontzen, argitzen eta fintzen direla; eta baita alfer eta geldi egoteaz guztiak galtzen, desegiten eta herdoiltzen ere. Bada, hori berori gertatzen da alfer dagoenaren baitan ere.</p> <p>Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen. Ur irakinean ez du euliak pausatzen. Ardurako arropari ez zaio zedenik (sitsik) egiten. Zuhaitz betekorria (emankorra) ez du inork ebakitzen.</p> <p>Baina alferra, fauna, hutsala, bere sasoian jasaten ez duena...zertarako da?</p> <p style="text-align: right;">(Zubimendi, J.R. eta Esnal, P.)</p>
---	---

<p><b>PREDIKAGU BATIAN</b></p> <p>Yaun erretor batek apezkupiaren letra bat hartu züzün behin, heñiari irakurtzekua. Igantian yoan züzün predikagiara eta irakurtzen hari zelarik, erori ziozün letra eta predikagiriaren zilo batetarik maiasturiaren emaztiaren burura heltü züzün. Ordian anderiak izuturik uzker bat egin zuen eta heñi guzia eñiz asi zen. Aphezak ordian erán zuen: —Nik maiasturiari maiz eráiten dia kozut zilo hori tapa dezala.</p> <p>Mauleko seme Jacques Pulitek erána (Azkue)</p>	<p><b>Pulpitu batean</b> (Zuberoako Maulen ikasia)</p> <p>Jaun erretor batek apezpikuaren karta bat hartu zuen behin, herriari irakurtzekoa. Igandean, pulpitutik irakurtzen ari zelarik, erori egin zitzaion karta, eta pulpituko zulo batetik arotzaren emaztearen buru gainera heldu. Andere horrek, aztoraturik, uzker bat egin zuen eta herri guztia barrez hasi zen. Orduan, apaizak: —Nik arotzari maiz esaten diot zulo hori tapa dezala.</p> <p>(Zubimendi, J.R. eta Esnal P.)</p>
---	---

2. Zeintzuk euskalkitan daude idatzita ezkerraldeko testuak? Aurreko ariketako pasarteekin konparatuz gero (“Bandera beltza” eta “Kito”) gutxiago ala gehiago kostatu zaizu ulertzea? Zer dela-eta uste duzu izango dela hori?



### 37. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Hizkuntzaren balio estetiko-ludikoa</b>																								
<b>HELBURUA</b>	Aldian behin gai serioak alde batera utzi eta hizkuntzarekin jolastea, gozatzea.																								
<b>PROZEDURA</b>	Ariketak bideratzeko argibideak jarraitzea eta beharrik izanez gero azalpenak ematea.																								
<b>ERANTZUNAK</b>	<table border="1"> <tr> <td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td><td>7</td><td>8</td><td>9</td><td>10</td><td>11</td><td>12</td> </tr> <tr> <td>4</td><td>9</td><td>6</td><td>1</td><td>7</td><td>2</td><td>3</td><td>8</td><td>5</td><td>12</td><td>11</td><td>10</td> </tr> </table> <p>2. ariketako adibideak: 1. Amona ganba janda jun da 2. Dun! bala 3. Jin, jan, juan 4. Ar mi arma 5. Po ron pon pon 6. Ken txanpon</p>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	4	9	6	1	7	2	3	8	5	12	11	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12														
4	9	6	1	7	2	3	8	5	12	11	10														

### ARIKETA

1. Lotu ezkerreko eta eskuineko zutabeetan ageri direnak.

#### *Zelan esaten da... Zelan esaten zaio...*

1. txineraz "Kamarero! Bi zerbeza"?	1. Txan-txi-ku	<b>1</b>	<b>4</b>
2. txineraz "Gaztaina!"?	2. Umekunde	<b>2</b>	
3. txineraz "Intsumisioa"?	3. Akabo fandango	<b>3</b>	
4. txineraz "Lope de Agirre?"	4. Patxi! Katxi katxi!	<b>4</b>	
5. swahilieraz "Buruko mina"?	5. Ai, makalena!	<b>5</b>	
6. swahilieraz "Hurtzaindegia"?	6. Txo! Ni enitxek!	<b>6</b>	
7. swahilieraz "Dantzaria hil egin da"?	7. Ganbara zunba-zunba	<b>7</b>	
8. swahilieraz "Bukatu da dantzaldia"?	8. Jun da furunda	<b>8</b>	
9. andaluzez "Trolepeko faroltxo gorriari"?	9. Txipli txapla pun!	<b>9</b>	
10. andaluzez "Gobernu paktua"?	10. Ferian Pepe bila	<b>10</b>	
11. andaluzez "txiskeroa"?	11. Zu beroa	<b>11</b>	
12. andaluzez "Festan Jose galdu zaigu"?	12. A ze ituna!	<b>12</b>	

2. Ea asmatzen duzun erantzunen bat.

#### **Zelan esaten da...**

1. Swahilieraz "Amona marisko gehiegi jan zuen eta hil egin da"?
2. Swahilieraz "Tiroa"?
3. Txineraz "self service"?
4. Andaluzez "Zomorroa"?
5. Andaluzez "Donostiako danborrada"?
6. Nor da Txinako "Ekonomia ministroa"?

(Kike Amonarrizen "Txorakikeriak" liburutik aterata)

### 38. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Euskalkiak: onak eta txarrak</b>
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>❖ Ikasleek euskara batua nahiz euskalkiekiko dituzten jarrerak agerian uztea.</li> <li>❖ Ikasleak ondorio hauetara helaraztea: ez dagoela euskara “onik” edo “txarrik” eta batua nahiz euskalkiak guztiak direla onak.</li> </ul>
<b>PROZEDURA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Euskara batua eta euskalkiei erreferentzia egiten dieten hainbat baieztapen irakurriko dituzte eta hauekiko adostasun-ezadostasun gradua adieraziko dute.</li> <li>2. Ondokoekin erantzunak aztertu eta gelakideen artean eztabaida bideratuko du irakasleak.</li> </ol>

#### ARIKETA

Erantzun ondoko baieztapenei dagokienean zure adostasun-ezadostasun gradua. Gogoratu 1 erabat kontra dela eta 5 erabat ados.

	1	2	3	4	5
❖ Niri ez zait gustatzen euskara batua artifiziala dela uste dudalako					
❖ Euskara batuaren helburua euskaldun guztiok elkar ulertzea da.					
❖ Nik batuaz egiten dut bestela beste eskualde batzuetako euskaldunak ulertzea ezinezkoa zaidalako.					
❖ Euskara batua polita da, baina nire herrikoa politagoa.					
❖ Ez da egia batuaz ez bada euskaldunok ezin dugula elkar ulertu, kontua saiatzea da.					
❖ Euskara batuak kaltea besterik ez digu ekarri, herri bakoitzeko euskara desagertzea ekarriko du luzera.					

### 39. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Dialekto geografiko guztiak berdinak dira</b>		
<b>HELBURUA</b>	Ikasleek beraienak ez diren aldaera geografikoez dituzten aurreiritziak erakustea.		
<b>PROZEDURA</b>	Ariketa hau bakarka, binaka edo talde txikian egin daiteke.		
<b>IRADOKIZUNA</b>	<p>Ariketa hau bera gaztelerazko, frantsesezko edo ingelesezko testuekin egin daiteke. Gertutasuna eta ezagutza maila direla-eta gaztelera eta bere aldaera bat aukeratu dugu. Kurtsibaz dauden hitzak Extremadura hegoaldean hitz egiten den dialektotik atera dira:</p> <table style="width: 100%; border: none;"> <tr> <td style="width: 50%; vertical-align: top;"> <i>tajea</i> – alcantarilla  <i>huncia</i> – yugo  <i>arrebujar</i> – mezclar  <i>mondonga</i> – morcilla  <i>escupidera</i> – mica – orinal  <i>espiche</i> – <i>pichi</i> – botijo  <i>gañote</i> – cuello  <i>himplar</i> – lloriquear  <i>albilla</i> – guisante  <i>avellana</i> – cacahuete                 </td> <td style="width: 50%; vertical-align: top;"> <i>avellana americana</i> – avellana  <i>frijoles</i> – judías  <i>jariego</i> – escandaloso  <i>escuerzo</i> – delgado  <i>antié</i> – anteayer  <i>trasantié</i> – antes de anteayer  <i>esterquera</i> – estercolero  <i>bilba</i> – boina  <i>zancajo</i> – talón  <i>desfandangar</i> – desordenar                 </td> </tr> </table>	<i>tajea</i> – alcantarilla <i>huncia</i> – yugo <i>arrebujar</i> – mezclar <i>mondonga</i> – morcilla <i>escupidera</i> – mica – orinal <i>espiche</i> – <i>pichi</i> – botijo <i>gañote</i> – cuello <i>himplar</i> – lloriquear <i>albilla</i> – guisante <i>avellana</i> – cacahuete	<i>avellana americana</i> – avellana <i>frijoles</i> – judías <i>jariego</i> – escandaloso <i>escuerzo</i> – delgado <i>antié</i> – anteayer <i>trasantié</i> – antes de anteayer <i>esterquera</i> – estercolero <i>bilba</i> – boina <i>zancajo</i> – talón <i>desfandangar</i> – desordenar
<i>tajea</i> – alcantarilla <i>huncia</i> – yugo <i>arrebujar</i> – mezclar <i>mondonga</i> – morcilla <i>escupidera</i> – mica – orinal <i>espiche</i> – <i>pichi</i> – botijo <i>gañote</i> – cuello <i>himplar</i> – lloriquear <i>albilla</i> – guisante <i>avellana</i> – cacahuete	<i>avellana americana</i> – avellana <i>frijoles</i> – judías <i>jariego</i> – escandaloso <i>escuerzo</i> – delgado <i>antié</i> – anteayer <i>trasantié</i> – antes de anteayer <i>esterquera</i> – estercolero <i>bilba</i> – boina <i>zancajo</i> – talón <i>desfandangar</i> – desordenar		

### ARIKETA

Irakurri ondoko hitz zerrendak eta:

1. Aurkitu euskalki ezberdinetako sinonimoak.
2. Batu esanahiaren arabera. Adibidez: *topatu* – *aurkitu* – *ediren*
3. Talde horietan hitz batzuk beste batzuk baino zuzenagoak dira? Arrazoitu erantzuna.

1. topatu	aurpegi	gibel
2. erdu	esnatu	tenore
3. erruki	fitsik	tziauri
4. itzartu	aurkitu	urtuki
5. ezer	zatoz	sobera
6. sasoi	sarri	iratzarri
7. jaurti	gupida	ebatsi
8. jazo	lapurtu	agitü
9. larregi	atze	ediren
10. maiz	bota	begitarte
11. musu	garai	deus
12. oste	gehiegi	pietate
13. ostu	gertatu	usu

1. topatu	→ aurkitu	ediren
2. erdu	→	
3. erruki	→	
4. itzartu	→	
5. ezer	→	
6. sasoi	→	
7. jaurti	→	
8. jazo	→	
9. larregi	→	
10. maiz	→	
11. musu	→	
12. oste	→	
13. ostu	→	

## 40. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Aurreiritziak hizkuntzen/euskalkien izaeraz</b>
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>◊ Hizkuntzen artean eta, orobat, hizkuntza beraren baitako erregistro dialektalen artean sortu ohi diren aurreiritziak deuseztatzea.</li><li>◊ Ikasleak ondorio honetara iristea: berez, hizkuntza eta hizkuntzaren erregistro guztiek dutela balio bera, ez dagoela horien artean hoberik edo txarragorik. Aurreiritziak hitzunik dituzte, ez hizkuntzek.</li></ul>
<b>PROZEDURA</b>	Ariketaren aginduei jarraitu.

### ARIKETA

1. Irakur ezazu Koldo Zuazoren testua.

#### **PRESTIGIO ETA AURREIRITZI ARRAZOIEN INDARRA**

Hizkuntzen artean badira hierarkiak, badira batzuk besteen gainean daudenak eta alderantziz. Euskarari dagokionez ere izan dira – eta badira – horrelako hierarkiak:

**Gainaldean: (...), latina, okzitanoa, frantsesa, gaztelania.**

**Azpialdean: euskara.**

Baina euskara/erdaren artean dagoen desoreka hori berori errepikatzen da euskararen barruan ere:

**Gainaldean: Beterriko gipuzkera, Lapurdiko kostatarra, euskara batua.**

**Azpialdean: gainontzeko euskalkiak.**

Iparraldean Lapurdiko kostatarra (hau da, Donibane-Lohitzune, Ziburu, Sara, Azkaine eta inguruetakozko hizkera) izan da betidanik dotoreentzat eta onentzat jo izan dena eta gainontzeko alderdietako euskaldunak hura erabiltzen ahalegindu dira. Hegoaldean, oster, Beterriko gipuzkera (alegia, Tolosa, Astigarraga, Hernani eta inguruetakozko hizkera) izan da goimaila hori bereganatu duena. Oro har behintzat horrela izan dira gauzak, salbuespenak ere badauden arren.

Bizkaiera mugatuz, oso sustrai sakonak ditu bizkaieradun hiztunek euren euskalkia (nonbait ere itsusia eta traketsa delakoan) alde batera utzi eta gipuzkerara (hau, berriz, politagoa eta goxagoa delakoan) jotzeko ohiturak.

(Koldo Zuazo)


2. Euskalkien arteko prestigioa dela eta ez dela, zuk zeuk entzun (esan) ahal duzu zure inguruan euskalki batzuk beste batzuk baino hobeak direlako aurreiritzia?

3. Launaka jarrita, komenta itzazue norberak esateko dauzkanak.
4. Irakurri ondoren datorren poema laburra bezain sakona. Buruz ikasteko gogorik bai?

**Eskuera, euskara  
uskara ta eskuara  
dana gauza bera  
horixe dugu euskera.**

**Izenak ezberdin  
baina muina du bat  
eutsi daigun gordin  
ta landu erabat**

**Bittor Kapanaga**



## 41. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Aurreiritziak euskalkien balioaz historian zehar</b>
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>◊ Euskalkien artean, balioa dela eta, historian zehar sortu ohi diren aurreiritziez eta horien ondorioez jabetzea.</li><li>◊ Ikasleak ondorio honetara iristea: oraintsu arte (1968 arte) euskara baturik ez eduki izanak testuetan ageri diren moduko aurreiritziak areagotzea baino ez duela ekarri. Honelakoak hizkuntza guztietan gertatzen badira ere, euskararen kasuan nabarmenagoa izan dela joera hori.</li></ul>
<b>PROZEDURA</b>	Testuak ozenki irakurri eta ideiarik garrantzitsuenak atera.

### ARIKETA

- A. Irakur itzazu ondoren datozen testuak eta laburbil ezazu ahalik eta hitzik gutxien erabilia bakoitzak zer dioen.

#### 1. testua

Bada atsecabe ematen didan beste gauza bat, au da enzutea Euscaldunac gaitzqui esten, ta aucitan becela batzuec besteaquin. Guiputzac enzuten dutenean Vizcaitarren itzquera, bereala aviatzen dira esaten, au dec eusquera zatar, astun, ta gogaitcarria. Norc enzun belarriac estaldu gabe? Vizcaitar ascoc (ez erri gucietacoac) esango dizute guiputzac dirala labañac beren itzqueran, emacumen mingain zorrotzentzat ona dala, vizcaicoa guizontsuagoa. Asitzen dira quiñu ta siñuca; oec arpeguian ematen die aiei, nion, cion, dioi, eta ala beste epai moldeaquin. Aiec berriz Vizcaitarrai, deutsat, neutsan, zeuntsan, esan juan, ez doc, bai doc ta onela beste itz ascotan.

(J. A. Mogel)

#### 2. testua

El dialecto de Zuberoa, que, en lo hablado especialmente, es muy varonil y fuerte; y si por esto los labortanos le tachan de áspero, ellos se desquitan calificando al labortano de afeminado y melindroso y siempre unos dialectos están murmurando de los otros con poca discreción.

(Manuel Larramendi)



A. 1. testuaren laburpena:

---

---

B. 2. testuaren laburpena

---

---

C. Antzekotasunik ba ote dute? Zertan?

---

---

2. Ondorengo testu honek, aldiz, ba ote du zerikusirik aurreko biekin? Irakurri eta hausnartu.

(...) Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenen eta zernahi izan dezake. Adieraz ditzake, bada, asmakizun argiak eta kirtenkeria "itzelak", gogoeta zoragarriak eta total-esaldi baldanak, garbiak eta lizunak, lirainak eta gordinak. Ez batzuek ez besteak ez ditu "hizkuntzak" esaten, ez baitu, beste norbaitek edo zerbaitek bezala, horretarako "nortasunik": mutu da, ez baitu ez ahorik ez eztarririk, are gutxiago bururik. Hizketan dakitenak beste norbaitzuk dira: eztarridunak, ahodunak eta (hala-holako) burudunak, haren bitartez, hura dela medio, mintzatzen direnak.

(Koldo Mitxelena)



## 42. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Aurreiritziak euskalkien balioaz gaur egun</b>
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>◆ Euskalkien artean, balioa dela eta, historian zehar sortu ohi diren aurreiritziez eta horien ondorioez jabetzea.</li><li>◆ Ikasleak ondorio honetara iristea: oraintsu arte (1968 arte) euskara baturik ez eduki izanak testuetan ageri diren moduko aurreiritziak areagotzea baino ez duela ekarri. Honelakoak hizkuntza guztietan gertatzen badira ere, euskararen kasuan nabarmenagoa izan dela joera hori.</li></ul>
<b>PROZEDURA</b>	Idatzitako pasadizoa irakurri eta ahoz edota idatziz norberaren esperientziaren berri eman.

### ARIKETA

1. Irakur ezazu Iñaki Saezek idatziriko testua.

#### EUSKALKIEN ARTEKO PRESTIGIO GORABEHERAK

Kaian, uraren gainean txirrist egin eta aldatsetan barrena Getariko elizaren atariraino heldu ziren eguzkiaren printzak, udaberri hasi berriko igande eguerdi hartan.

Eztei eguna, bazkari ederra, dantzaldia, berriketa ugari eta ohiko parranda.

Egun berean, ezagututako bertako marinela batek eta biok berbetan geniharduen...

—Hik nahi duana esango dek, baina geurea, garbia, polita eta ona dek. —zioen arrantzaleak.

—Zeuna politta dok baina horrek etxok esan nahi geuria eskasagua danik.

—Euskal Telebistan ta nola egiten ditek ba...?

—Bai, euskara batuan eitten juek eta batuak zati handi bat gipuzkeratik hartu juan eta, ba badakik...

—Heuk nahi duana esango dek baino geurea dek liburuetan eta agertzen dena.

—Ezet ba, euskalki guztiak onak dirala, danak euskera dirala hi. Ez hadi kaskagorra izan, demontre!

—Alperrik habil. Hik egin ezak hiria eta neuk neuria egingo diat.

—Ederto ba, nik neuria eingo juat baina etxuat esango inoiz neuria hobia danik, nahiz eta ezberdinak izan bixak onak dittuk ta.

—Beno hi, beste tragotxo bat joko diagu, ala?

—Hori dok eta. Beste taberna batean hartuko juau, eztok?

—Dena dela bizkaiera...

Biharamonean, aldatsetatik barrena Getariko eliz atariraino eguzki izpi goiztiarrak igotzen ikusi genituen.

(Iñaki Sáez)

2. Zuri zeuri gertatu al zaizu inoiz halakorik? Noiz eta nola? Zuri gertatu ez bazaizu, galde iezaiozu etxekoren bati edo beste adiskideren bati ea berak ba ote duen antzeko esperientziarik.

## 43. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Euskara batuaren faltak eragindakoak</b>
<b>HELBURUA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>◆ Euskalkien artean, balioa dela eta, historian zehar sortu ohi diren aurreiritziez eta horien ondorioez jabetzea.</li><li>◆ Ikasleak ondorio honetara iristea: euskara baturik gabe, norik bere euskalkia erabilia, Xalbadorri gertatu modukoak behin baino gehiagotan izan direla Euskal Herrian. Kasu honetan, areago, euskalki ezberdina ez ezik muga politikoz bestaldekoa baitzen.</li></ul>
<b>PROZEDURA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Azaltzea zer den bertso-txapelketa baten testuingurua.</li><li>2. Irudikatzea egun horretan zer gertatu zen Donostian.</li></ol>

### ARIKETA

1. Irakurri testua eta irudika ezazu egun horretan Donostian gertatu zena:

**1967**  
DONOSTIA.

#### **Txistuak txalo bihurtzen dituen pertsularia**

*Buneta* beti aldean, begiak erdi itxian eta ahotsari hatsa doi ematen kantatzen du Fernando Aire, *Xalbador*-ek. Gizon luxezka da Urepeleko artzaina, eta esan liteke malda musker pikoek baldartu diotela ibilera taula gainera bidean.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa irabazle berria ezagutzeko bidean da ekainaren hamaika honetan. Goizeko saioa amaituta, lau bertsolari, erdiak, pasatu dira arratsaldekoa: Xalbador, Lopategi, Gorrotxategi eta Lazkao Txiki. Lauren arteko lehia gozagarri zaio Anoetako frontoira hurbildu denari. Lauren arteko bat, bakarra izanen da aurreko txapeldunarekin, Uztapiderekin azkenean neurtuko dena.



Epaimahaiak hondar saiora pasatzen den bertsolariaren izena eman duenean, Fernando Aire, *Xalbador*, oihuz eta txistu hotsez hartu da mahaiaren erabakia. Bost minutu eta erdi iraun du entzuleen txistualdiak, bertsolari bati inoiz egin zaion luzeena.

Tartean txalo bakan batzuk ere badira, eta iskanbila baretu denean, mikrofonora hurreratu eta honela kantatu du:

*Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa  
neure gustora nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik...*

Pilotalekuan bildutako entzuleak berriro eten du Xalbadorren kantua, baina oraingoan txalo zaparrada bihurtzeko lehengo txistu eta fuerak. Xalbadorrek, begiak bildu eta airean utzi dituen hitzak ehizatzen ditu atzera ere:

*Zuek ezpazerate kontentue  
errua ez daukat, ez, nik:  
txistuak jo dituzue bainan  
maite zaituztet oraindik!*

Txalo artean aurkitu behar izan du amaitzeko bidea, eskuak handitzerainoko eskuzartak eta disimulatu gabeko malko batzuk erdietsi ditu ibilera baldarreko bertsolari luzekarak. Berari ere irristatu zaizkio batzuk... Ez da Donostian kantatzen duen lehen aldia. Jendea ohituxea dago Xalbadorren euskara entzuten, baina Aingeru Irigarai, *Apat Etxebarne-k Diario de Navarra* egunkarian egun batzuk lehenago eman duen artikulu batean iragarri bezala, zail egiten zaie oraindik ere haren mintzamoldea frontoia bete duen gipuzkoarrei.

Gaurkoarekin, txistuak txalo bihurtuta, buelta eman zaio gertakari lotsagarriari, anekdota gogoangarri bat ekarri da bertsolaritzaren historiara. Baina Urepeleko artzainaren barnean geratu den tristura bertsozale guztiena da, inoiz urtuko ez den histasun beltza.

(Iñigo Aranbarri)

2. Zer iruditzen zaizu Aingeru Irigaraik *Diario de Navarra* emaniko argibidea “*zail egiten zaie oraindik ere haren mintzamoldea frontoia bete duten gipuzkoarrei*”.



## 44. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Euskara batua eta euskalkiak</b>
<b>HELBURUA</b>	Euskara batua eta euskalkiek direla eta, landutakoen ondorioak laburbiltzea.
<b>PROZEDURA</b>	Testuak irakurri eta laburpena egin ondoren adostasunez eta desadostasunez aritu, irakaslea gidari dela..

### ARIKETA

1. Irakurri ondoren datozen testu biak. Egin ezazu horien laburpena.

#### 1. testua

“Ondorio bezala hauxe esango nuke: gal ditzagun euskalkienganako lotsa eta konplexuak eta erabil ditzagun – lasai asko, gainera! –, egoki denean, geure hitz eta esamoldeak. Baina egoki denean hori nahi dut azpimarratu, izan ere ez delako batere berdin Euskal Herri osorako idazten edo hitz egiten ari garenean edota geure herri edo eskualderako (herri irratietan, herri aldizkarietan, herri barruko propaganda txarteletan...) ari garenean.

Ondo dago bakoitzak bere euskalkia erabil dezan, baina ahaztu gabe bizkaitar, gipuzkoar, nafar, zuberotar... baino lehen euskaldun garela. Ahaztu gabe lehenago dagoela euskara euskalki edo hizkeratxo baino.

Amaitzeko, eta honaino esandakoa hitz bitan laburbilduz, euskara batua euskalkien hiltzailea dela edota euskalkiek euskara standardaren kaltetan dihardutela bezalako iritziek ez du ematen etorkizun handiegirik dutenik. Ez, behinik behin, zentzua nagusi den gizarte batean. Euskara batua Euskal Herriaren hizkuntza nazionala da. Ez gehiago eta ez gutxiago. Hizkuntzek, ostera, beste erabilera batzuk ere badituzte eta horietariko zenbaitetan askozaz ere egokiagoak gerta daitezke euskalkiak. Oraingoz hauxe eta bestelakoez geroak esango”.

(Koldo Zuazo)

#### 2. testua

### **Maita nazazu gutxiago ta goza nazazu gehiago.**

Laburbilduaz, hauxe da esan nahi dudana. Euskalkien alde banago, ez da inondik inora ere erromantizismoz. Ez da hitz hau edo hura galtzeak, esapide hau edo hura baztertzeak samina sortzen didalako. Gauzak galtzeak eta baztertzeak beti sortzen du samina, baina ez da hori euskalkiei bultzatzeko arrazoi nagusia.

Euskalkien alde banago, ez da harrokeriaz eta chauvinismoz ere. Ez da nire euskalkia denetan hoberena begitantzen zaidalako. Ona da, bai, nire euskalkia; onena niretako, eta oso harro nago. Baina onena izanda ere, ez da besteak baino hobea. Ez hobea ez txarragoa; neure nortasuna, neure sena da, eta kito!

Azken baten, beraz, euskararen alde nagoelako nago euskalkien alde, euskararen osasuna, euskararen kalitatea eta euskararen etorkizuna dagoelako jokoan.

Dena dela, euskalkiak ere ez dira arazo guztien konponbidea. Lagunarteko hizkerak, eta ahozko euskarak oro har, joan den urteotan ukatu zaien arreta eta lekua bereganatu behar dute, eta, hartara, euskaldun guzti-guztiona da etorkizuneko iraultza bideratzeko eta gauzatzeko erantzukizuna.

(Koldo Zuazo)

1. testuaren laburpena:

---


---

2. testuaren laburpena

---

---

2. Koldo Zuazok esandakoarekin bat zatoz? Zertan bai eta zergatik? Eta zertan ez eta zergatik ez? Iritziak trukatu talde handian.



## 45. JARDUERA

<b>EDUKIA</b>	<b>Aurreko ariketetan ikasitako edukiak aplikatzea</b>
<b>HELBURUA</b>	Ikasleei hizkuntza aurreiritziak identifikaraztea.
<b>PROZEDURA</b>	Jarraitu ariketaren argibideak.

### ARIKETA

- A. Irakurri hurrengo testua eta esan iritzi horretan hizkuntza-aurreiritzirik dagoen ala ez. Baiezkotan, esan nolako aurreiritzia den.

ONLY BRITISH ENGLISH  
I´d been learning English in Ireland  
And when I came back to Spain I  
discovered your magazine. I think it  
is a very good one, but I´d like to  
suggest that yo point ont the  
American colloquial expressions  
because I think there are many  
people like me who only want to  
know English or british sentences.  
Hoping to hear from you soon and  
thank for your help.

(Carlos Méndez Cáceres)

- B. Hona hemen aurreko gutunari erantzundakoa. Esan ados zauden ala ez eta arrazoitu zure erantzuna.

We are afraid what you want is impossible: the English language is shared by millions people in many countries and no one variety is better than other. Speak Up is for people learning English, not only British English.

(Speak Up aldizkaria, 79. zkia, 7. or.)